

Gure txikitako beldurrak

Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua

Sekuentzia honetan, denok izan ohi ditugun beldurrak aztertuko dira, eta batez ere txikitako beldurrak izango dira hizpide. Ariketa hauek egingo dituzu.

- Gaian sartzeko, galdera irekiei erantzun.
- Erreportajea entzun eta egiak eta gezurrak identifikatu.
- Beldurra adierazteko esapide eta egiturak: esaldiak moldatu.
- Aditza lehenaldian: testigantza osatu.
- Zure txikitako beldur bati buruz idatzi.



1- Nire txikitako beldurrak



Esaten dutenez denok dugu beldurren bat, eta txikitan zer esanik ez. Gaian sartzeko, zure beldurrak zein diren jakin nahi dugu. Horretarako, erantzun galdera hauei, eta komentatu erantzunak lagunarekin.

1. Txikitan zuk zeri zenion beldur handia? Irakurri beheko adibideak. Aukeratu eta kontatu zure lagunari.

- Ni ikaragarri beldurtzen nintzen txakurrekin. Berdin zen, txikiak edo handiak izan.
- Iluntasunak beldur handia ematen zidan, beti pentsatzen nuen hor norbait zegoela.
- Ni, ekaitza egiten zuenean, beti etxeko gela batean ezkutatzen nintzen. Tximista eta trumoiarekin asko beldurtzen nintzen.

Besterik?.....

2. Eta orain beldur hori gainditu al duzu? Zer egin duzu horretarako?

3. Eta orain zerri diozu beldurrik handiena? Kontatu horri lotutako pasadizo bat.

2- Hartzen erietxea: egia ala gezurra da?

*EHUko medikuntza fakultatean **Hartzen erietxea** izeneko esperientzia bitxia jarri dute martxan, haurrek medikuari dioten beldurra gainditzeko.*

Entzun erreportajea eta bitartean, seinalatu esaldi hauek egia edo gezur diren. Horietako bat ez da aipatu. Lehendabizi, irakurri esaldiak.

	EGIA	GEZURRA	EZ DU ESAN
Ekimen honekin, haurrek medikuari dioten beldurra galtzea nahi da.			
Ekimen hau EHUko medikuntza fakultateko irakasleek jarri dute martxa.			
Ospitalera iristen denean, haurrari bere gaixotasunen historial osoa egiten diote.			
Haurrek hartz txikiekin medikuaren papera hartzen dute.			
Esperientzia hau Euskal Herriko beste zenbait herritara zabaldu nahi dute.			
Ebakuntza-gelan, haurrak zirujauz janzten dira, txano eta guzti.			
Hartzen erietxean, haurrak medikuarekin esperientzia positiboa izatea nahi dute.			
Esperientzia hau astero egiten dute ikastola desberdinetan.			

3- Kaka praktetan

Euskaraz egitura bat baino gehiago erabiltzen dugu beldurraren sentsazioa adierazteko. Horietako batzuk landuko ditugu. Irakurri beheko adibideak, eta ondoren, esaldiak moldatu parentesien artekoa erabilia.

1. Aditzak

- BELDURTU: Norekin/Zerekin/Non beldurtzen garen
- BELDURRA EMAN: Norbaitek/Zerbaitek norbaiti beldurra ematen dio
- BELDUZ IZAN: Norbaitek Norbaiti/zerbaiti beldur dio

Zenbait esapide: EGON aditzarekin

- Beldurtuta + EGON
- Beldurrak airean + EGON

Ikus adibideak:

*Ni asko beldurtzen naiz txakurrekin.
Leku itxietan ikaragarri beldurtzen naiz.*

*Arratoiek (niri) beldurra ematen didate.
Iluntasunak beldurra ematen dit.*

Nik beldur diet saguei.

Atzoko ekaitzarekin, denok beldurrak airean egon ginen.

Basora joaten naizenean beldurtuta egoten naiz txindurriekin.

Ikus erantzun-adibidea: Espazio itxiekin asko beldurtzen naiz. (beldurra eman)
Erantzuna: Espazio itxiek beldurra ematen didate.

1. Katu beltzak ez zaizkit batere gustatzen. (beldurra eman)
_____ niri beldur handia _____.
2. Txikitan iluntasunarekin beti beldurtzen nintzen. (beldurra eman)
Txikitan, _____ beldur handia _____.
3. Intsektuak gustatzen zaizkizula? Uf, niri intsektuek beldurra handia ematen didate. (beldurtu)
Ni intsektuekin _____.
4. Zure anaia espazio itxietan beldurrak airean jartzen da. (beldurtu)
_____ espazio itxiek beldur handia _____.
5. Zure txakurrari urak beldur handia ematen dio. (beldurtu)
Zure txakurra _____.



4- Testigantza beldurgarria

Testigantza honetan, neska batek txikitako beldur bat nola sortu zitzaion kontatuko du, baina aditz batzuk falta zaizkio. Osatu testua aditz-laguntzaile egokia aukeratuta. Lehendabizi, irakurri beheko azalpenak eta adibideak.

Aditza iraganean.

Gertatu zaizkigun anekdotak kontatzen ditugunean, lehenaldiko formak erabiltzen ditugu:

Egitura: Aditzoina + aditz laguna (lehenaldian)

Kontuz! Egunaren barruan gertatutakoak kontatzeko, ez ditugu lehenaldiko formak erabiltzen euskaraz.

Adibideak:

Urak beldur handia ematen zidan. (beti ematen zidan)

Medikuen kontsultan asko beldurtzen nintzen. (beti beldurtzen nintzen)

Behin berandu iritsi nintzen eskolara. Egun batean irakasleek koskorrekoa eman zidaten.

Ni oso txikia nintzela Altzan bizi nintzen. Garai hartan, Bidebietan arazo handiak zeuden drogekin... Gu, ikastolara bidean handik ____1____ eta etxean beti ____2____ kontuz ibiltzeko, drogak oso txarrak zirela... eta horiek ez zirela inoiz probatu behar. Ondorioz, txiki-txikitatik niri drogek beldur handia ____3____. Beno, ba kontua da, Herrera auzoan, “Droguería” jartzen zuen denda bat zegoela. Eta irakurtzen ____4____, “drogueria” ikusi, eta beldurrak airean jarri nintzen.

Bat-batean kartel hori ikusita, izugarrizko beldurra ____5____. Herrerako alde horri. Ikastolarako bidean, gu handik askotan pasatzen ginen oinez, beno ez, ni korrika joaten nintzen. Ezin nuen ulertu nolatan jarri zuten drogeria bat, hor gure auzoaren ondo-ondoan. Eta gainera, batzuetan jende arraroa ____6____ hara sartzen. Eta bai ba, nire beldurra handitu egin zen.

Urteak ____7____ Herrera alde horretan ibiltzen zen jendeari begira, eta itxura xelebrea ikusten nien gainera. Urte batzuk pasa ondoren ____8____ drogeria batean ez zela droga saltzen. Baina, nik nola jakingo nuen ba! Oraindik ere, denda hori zegoen tokitik pasatzean, begira-begira gelditzen naiz... Eta neure buruari galdetzen diot nola igaro ote nuen hainbeste denbora benetazko beldurrarekin handik ____9____ bakoitzean.

www.nahitaezina.com blogetik hartua. Bertsio moldatua.

**pasatzen nintzen / ikusten nuen / ematen zidaten / esaten ziguten / hartu nion /
pasatzen ginen / ikasi nuenean / eman nituen / jakin nuen**



5- Zure txikitako beldurrak

Gogoratzen duzu sekuentziaren hasieran azaldu diren txikitako beldurrak? Orain horri buruz idazteko aukera izango duzu.

Zure herriko aldizkarirako txikitako beldur bati buruz idazteko eskatu dizute. Gehitu beldur horri lotutako pasadizoren bat. Nahi baduzu, erabili beheko gidoia eta saiatu proposatutako egitura eta esamoldeak erabiltzen. Aurreko ariketako adibideak balioko dizu.

GIDOI-PROPOSAMENA

- * Txikitak zeren beldur izaten zinen? (iluntasuna, animalia baten, ekaitza..) Zergatik?
- * Zer egiten zenuen edo zizuten beldur hori gainditzeko?
- * Kontatu pasadizoren bat:
 - * Zer gertatu zen?
 - * Noiz gertatu zen? Zein zen egoera?
 - * Zein ondorio izan zituen pasadizo horrek zure bizitzan?



Saiatu egitura hauek erabiltzen

- Beldurrak airean egon + IZAN
- Asko beldurtu + IZAN
- (Horrek) beldur handia eman (ematen) zidan.
- (Horri) beldur handia nion

Denborazkoak:

- Handik aurrera = Harrezkero
- Ondoren = Eta gero Bitartean,....

2- Hartzen erietxea: egia ala gezurra da?

	EGIA	GEZURRA	EZ DU ESAN
Ekimen honekin, hurrek medikuari dioten beldurra galtzea nahi da.	X		
Ekimen hau EHUko medikuntza fakultateko irakasleek jarri dute martxa.		X	
Ospitalera iristen denean, haurrari bere gaixotasunen historial osoa egiten diote.		X	
Hurrek hartz txikiekin medikuaren papera hartzen dute.	X		
Esperientzia hau Euskal Herriko beste zenbait herritara zabaldu nahi dute.			X
Ebakuntza-gelan, haurrak zirujauz janzten dira, txano eta guzti.	X		
Hartzen erietxean, haurrak medikuarekin esperientzia positiboa izatea nahi dute.	X		
Esperientzia hau astero egiten dute ikastola desberdinetan.		X	

3- Kaka praktetan

1. Katu beltzak ez zaizkit batere gustatzen. (beldurra eman)
(Katu beltzek) niri beldur handia (ematen didate)
2. Txikitan iluntasunarekin beti beldurtzen nintzen. (beldurra eman)
Txikitan, (iluntasunak) beldur handia (ematen zidan)
3. Intsektuak gustatzen zaizkizula? Uf, niri intsektuek beldurra handia ematen didate. (beldurtu)
Ni intsektuekin (asko beldurtzen naiz)
4. Zure anaia espazio itxietan beldurrak airean jartzen da. (beldurtu)
(Zure anaiari) espazio itxiek beldur handia (ematen diote)
5. Zure txakurrari urak beldur handia ematen dio. (beldurtu)
Zure txakurra (asko beldurtzen da urarekin)

4- Testigantza beldurgarria

Ni oso txikia nintzela Altzan bizi nintzen. Garai hartan, Bidebietan arazo handiak zeuden drogekin... Gu, ikastolara bidean handik **(pasatzen ginen)** eta etxean beti **(esaten ziguten)** kontuz ibiltzeko, drogak oso txarrak zirela... eta horiek ez zirela inoiz probatu behar. Ondorioz, txiki-txikitatik niri drogek beldur handia **(ematen zidaten)**. Beno, ba kontua da, Herrera auzoan, “Droguería” jartzen zuen denda bat zegoela. Eta irakurtzen **(ikasi nuenean)**, “drogueria” ikusi, eta beldurrak airean jarri nintzen.

Bat-batean kartel hori ikusita, izugarrizko beldurra **(hartu nion)** Herrerako alde horri. Ikastolarako bidean, gu handik askotan pasatzen ginen oinez, beno ez, ni korrika joaten nintzen. Ezin nuen ulertu nolatan jarri zuten drogeria bat, hor gure auzoaren ondo-ondoan. Eta gainera, batzuetan jende arraroa **(ikusten nuen)** hara sartzen. Eta bai ba, nire beldurra handitu egin zen.

Urteak **(eman nituen)** Herrera alde horretan ibiltzen zen jendeari begira, eta itxura xelebrea ikusten nien gainera. Urte batzuk pasa ondoren **(jakin nuen)** drogeria batean ez zela droga saltzen. Baina, nik nola jakingo nuen ba! Oraindik ere, denda hori zegoen tokitik pasatzean, begira-begira gelditzen naiz... Eta neure buruari galdetzen diot nola igaro ote nuen hainbeste denbora benetazko beldurrarekin handik **(pasatzen nintzen)** bakoitzean.